

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 1057

*AGINDUA, 2018ko otsailaren 15ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, Enkarterriko billanoa arrazaren erregelamendu espezifikoaren onartzen duena.*

Etxeko abereen dibertsitatea funtsezkoa da agrodibertsitatearako. Inguruneak nahiz gizakiak eragindako hautapen-prozesuetatik sortu dira arrazen arteko desberdintasun genetikoak. Etxeko abere-espezie eta -arrazen behar desberdinek, bai eta jokabide eta produktu desberdinek ere, ondorioak dituzte ekoizpen-ingurune bakoitzean. Denetariko ingurune horiek jasagarriak izango badira, denetariko mota genetikoak egon behar dute. Etxeko abereen dibertsitatea eboluzionatuz joan da 12.000 urte baino gehiagoan; gure ondarearen zati bat da, eta zutik eutsi behar diogu hurrengo belaunaldientzat.

1993ko Biologia Dibertsitatearen Konbentzioa biologia-dibertsitatearen alderdi guztiei heltzeko lehen akordio orokorra izan zen; lehenengo aldiz aitortu zuen, halaber, biologia-dibertsitatea kontserbatzea gizaki guztien ardura dela eta garapen-prozesuaren zati integral bat dela.

Kontserbazioa eraginkorra izan dadin, besteak beste, bi zutabe behar ditu: lehenik, arrazak identifikatzea eta haien zerrenda egitea; eta, bigarrenik, haiek deskribatzea eta haien ezaugarriak zehaztea, haien berezitasunak ezagutzeko eta etorkizunik aberatsena zein arrazetatik letorkeen jakiteko.

Gizarteak eta erakundeek urteak daramatzate Euskal Herriko arraza autoktonoen ondare genetikoaren alde egiten. Zehazki, 2003an egin zen Enkarterriko billanoa txakur-arrazaren erregelamendua. Ordutik hona gertatu diren arautegi-aldaketek beharrezkoa egin dute Genealogia Liburuaren egitura eta kudeaketa moldatzea. Era berean, batzorde kudeatzaileak hautaketan eta hobekuntzan egindako lanari esker, arraza-estandarraren ezaugarri morfologikoak zehaztu ahal izan dira.

Enkarterriko billanoak Euskal Herriko mendebaldeko muturrean –alegia, Bizkaiko Enkarterrin– sortutako heltze-txakurrak dira. Chato arraza zenaren ondorengoak dira, eta montxina arrazako behi erdi-basatien abeltzainek antzinatek erabiltzen dituzte, behiok harrapatzeko hazten diren ibar malkartsuetan.

Horiek horrela, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Enkarterriko billanoa txakur-arrazaren erregelamendu espezifikoaren onartzen da, eta eranskinean dago jasota.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Fundazio Erregistroa 24 hilabetez irekita egongo da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da 2003ko abenduaren 9ko Agindua, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Enkarterriko billanoa txakur-arrazaren erregelamendu espezifikoa onartzen zuena.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko otsailaren 15a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

## ERANSKINA

## ENKARTERRIKO BILLANOA TXAKUR-ARRAZAREN ERREGELAMENDU ESPEZIFIKOA

## 1.– ARRAZAREN EREDU EDO ESTANDARRA.

## 1.1.– Arrazaren definizioa.

Arau hauetan zehazturiko arraza-prototipoarekin bat datozenak hartuko dira Enkarterriko billanoa txakur-arrazakotzat.

## 1.2.– Arrazaren barietateak.

Ez dago barietaterik Enkarterriko billanoa txakur-arrazaren barruan.

## 1.3.– Arrazaren ezaugarri morfologikoak.

## 1.3.1.– Ezaugarri orokorrak.

Tamaina ertaineko txakurrak dira, longilineoak eta egitura trinkokoak. Burua eta bularraldea zabalak dituzte eta aurreko herena guztiz sendo eta gihartsua da.

Gogor itxura dute, eta sexuen arteko dimorfismoa nabarmena da.

Jabearen ondoan bizi-biziak eta arinak dira. Ezezagunen aurrean begiak erne eta serio egoten dira.

Ilea barreatua dute, nabarra edo marra beltz, gris eta horailekoa.

## 1.3.2.– Ezaugarri zehatzak.

## a) Burua:

Mesozefalikoa da, trinkoa, baina ertz garbiak eta definituak ditu. Burezur-aurpegien ardatzak pixka bat dibergenteak dira.

Burezurra: Mesokraneotoa eta subkonbexua da. Garondoko gandorra ez da oso irtena.

Bekoki-sudurretako sakonunea luzea eta nabarmena da.

Aurpegia: Mutturra zabala eta sakona da. Goitik begiratuta piramide-enborrharen itxura du, piramidearen oinarria sudur-puntako aldean dagoela.

Barailak zuzenak eta indartsuak dira, eta masetero muskulu handiak dituzte.

Sudurraren gainaldea zuzena da.

Sudur-punta zabala da eta alboetan arrakalatuta dago.

Ezpainak meheak eta irmoak dira. Goikoak behekoa estaltzen du, ertzetan izan ezik.

Hortzeria ederki eratuta dago. Letaginak handiak dira.

Kurriek bezala egiten dute hozka.

Begiak zeharka daude eta aurrerantz begiratzen dute. Barrurantz sartuta daude masetero muskulu handien artean.

Belarriak tenteak dira eta atze samarrean daude. Elkarrengandik oso aparte daude. Laburrak dira gehienez.

Lepoa ertaina da, zilindrikoa eta oso gihartsua.

b) Gorputz-enborra:

Soinkurutzea laburra eta zertxobait nabarmendua da.

Bizkarra luzea, zuzena eta zabala da.

Gerrialdea laburra da, apur bat subkonbexua zerraren hasieran. Zerrak 45° inguruko inklinazioa du; zabala eta gihartsua da.

Bularra oso zabala eta sakona da eta gihar handiak ditu. Beraz, gorputz-adarren artean tarte zabala dago.

Saihetsak nahiko konbexuak dira bizkarrarekin bat egiten duten zatian, eta ez hainbeste erdiko herenean.

Bularrezurraren lerroa ukondoaren azpitik dago. Sabela tinkoa eta meharra da.

Buztana luzea eta mehea da, kanporanzko igital-ixurako jarrera du beti, eta oso mugikorra da. Bai geldi dagoenean eta bai mugitzen denean, alboetarantz higikortasun handia du. Geldi dagoenean, kurbaren behealdea belaunburuen pare edo geratzen da. Mugitzen denean, bizkar-gerrialdeko lerroaren luzapen gisara altxatzen da, igital-ixura inoiz galdu gabe, geldiunean baino irekiagoa bada ere.

c) Gorputz-adarrak:

Luzera eta lodiera ertainekoak dira eta jarrera perfektua dute.

Aurreko gorputz-adarrak: Aurretik begiratuta, jarrera perfektua dute eta oso bananduta daude.

Sorbalda laburra eta gihartsua da, askea, eta 45°-ko inklinazioa du.

Besoa sorbalda bezain luzea da, gihartsua, eta oso mugikortasun handikoa.

Angelu eskapulo-humerala 90° ingurukoa da.

Ukondoa txikia eta markatua da.

Besaurrea luzea da. Oso lodia izan ez arren, lokailu eta hezur sendoak ditu.

Karpoa ez da nabarmena. Metakarpoa luzea da, ia bertikala, besaurrearen luzapena balitz bezala, eta ezproi garatua du.

Eskuetan behatz labur eta sendoak ditu, azazkal handiak eta kuxin gogorrak.

Atzeko gorputz-adarrak: Atzetik begiratuta: paraleloak eta oso bananduak.

Izterra gutxi gorabehera bizkarra bezain luzea da eta inklinazioa ere antzekoa du.

Hanka luzea da, goiko herenean gihartsua, eta beheko herenean meheagoa baina lokailu oso garatuekin.

Belaunburua ertaina da, irekia, eta punta markatua du.

Metatartsoa luzea eta ertaina da, ezproirik gabekoa.

Oinak eskuak bezalakoak dira.

d) Azala:

Azala lodiera ertainekoa da, sendoa eta malgua. Gorputzari atxikitzen zaio, hezurren erliebeak eta giharren planoak nabarmenduz.

e) Kolorea eta ilea:

Kolorea nabarra edo marraduna da, gutxi-asko iluna. Ile beltz, gris eta horailak izan ditzake, ordena horretan lehenetsita. Kolore bakarrekotan, uniformetasuna ahalik eta handiena izan behar da. Zuriuneak izan ditzake paparrean eta gorputz-adarretan.

Sudur-punta beltza da.

Begiak hurritz-kolorekoak dira, ilunagoak edo argiagoak, ilearen arabera.

Ilea laburra, gogorra eta leuna da, zentimetro bat eta hiru bitarteko luzera du, oso sarria da eta gorputzari atxikita dago.

f) Neurriak:

Soinkurutzeko altuera: 58-63 cm arretan eta 55-60 cm emeetan.

Proporzioak: Soinkurutzeko altuera / luzetarako diametroa: 5/6. Soinkurutzeko altuera / bizkar-bularraldeko diametroa: 2/3. Burezurraren luzera / aurpegiaren luzera: 5/4 arretan eta 1/1 emeetan.

g) Pisua:

Ez dago pisuaren batez besteko estandarrik. Beraz, askotariko neurriak onartzen dira, hazkuntzaren eta beste inguruabar batzuen arabera.

### 1.3.3.– Izaera eta portaera.

Oso orekatua. Esanekoa, alaia eta oso maitekorra jabearekin. Indartsua, azkarra eta behar bezain haserrekorra abereak erabili behar dituenean. Ezezagunen aurrean zuhur eta fidagaitz agertzen da, erne eta serio begiratzen die, baina bere indarrak ematen dion lasaitasunarekin.

Bizkor eta arin mugitzen da. Gorputz-adarrak eroso eta nahi beste luzatzen ditu, lurretik gehiegi altxatu gabe.

#### 1.3.4.– Ezaugarri baztertzaileak.

Oro har, ezaugarri baztertzailetzat hartuko dira tara hereditario edo malformazio fisiko nabari guztiak, eta arrazarenak ez diren ezaugarriak.

Batez ere, honako hauek akats larritzat joko dira, txakurra deskalifikatzeko adinakoak:

- Izaera desorekatua.
- Edozein eratako prognatismoa.
- Monorkidia (testikuluren bat falta izatea).
- Albinismoa.
- Brakizefalia.
- Buztan laburra.
- Ezproiak atzeko hanketan.
- Sudur-puntaren pigmentazio eza.
- Estandarrarekin bat ez datozen koloreak.

## 2.– ANIMALIEN SAILKAPEN MORFOLOGIKOA.

### 2.1.– Kalifikaziorako baremoa.

Arrazaren estandarraren betebeharren arabera, puntuazio metodoaren bidez egingo da kalifikazio morfologikoa. Eskualde anatomiko bakoitzari puntu bat emango zaio gutxienez, eta hamar gehienez, ondoko baremo honen arabera:

Kalifikazioa, puntuak

Ezin hobea 10 puntu

Bikaina 9 puntu

Oso ona 8 puntu

Ona 7 puntu

Onargarria 6 puntu

Nahikoa 5 puntu

Onartezina 5 puntu baino gutxiago

Baloratu beharreko edozein eskualderi 5 puntu baino gutxiago emanaz gero, animalia deskalifikatu egingo da, gainerako eskualdeek lortutako puntuazioa kontuan hartu gabe.

2.2.– Kalifikatu beharreko alderdiak eta alderdion ponderazioa.

Jarraian adierazten da kalifikatu behar diren eskualdeak zein diren. Haietariko bakoitzerako, gainera, ponderazio-koefizientea adierazten da.

Eskualde bakoitzari esleitutako puntuazioa bider eskualdeari dagokion koefizientea egingo da, eta, hala, animalia-aren behin betiko puntuazioa lortuko da:

Koefiziente biderkatzaileak

Kalifikatu beharreko eskualdeak Arrak Emeak

Burua eta lepoa 1,5 1,5

Sorbalda eta soinkurutzea 1 1

Bularraldea eta saiheitsaldea 1 1

Bizkarraldea eta gerrialdea 1 1

Zerra eta buztana 1 1,5

Gorputz-adarrak eta hanka-jarrera 1,5 1,5

Sexu-ezaugarriak 0,5 0,5

Izaera eta itxura orokorra 2,5 2

Guztira 10 10

Azken puntuazioa horrela lortuta, animaliak kategoria hauen arabera sailkatuko dira:

Kategoria Lortutako puntuak

Ezin hobea 100 puntu

Bikaina 91-99,99

Oso ona 81-90,99

Ona 75-80,99

Onargarria 70-74,99

Nahikoa 60-69,99 emeetan; 65-69,99 arretan

Eskasa 55-59,99 emeetan; 55-64,99 arretan

Txarra 55 baino gutxiago

3.– ENKARTERRIKO BILLANOIA TXAKUR-ARRAZAREN GENEALOGIA-LIBURUAREN EGITURA.

Enkarterriko billanoia txakur-arrazaren Liburu Genealogikoa ondoren azaltzen diren erregistroetan egituratzen da: Erregistro hauetako edozeinetan inskribatzeko, animaliak banaka identifikatu behar dira.

Enkarterriko billanoa txakur-arrazaren Liburu Genealogikoak bi atal izango ditu:

Atal nagusia, erregistro mota hauek barnean hartuta:

- Fundazio Erregistroa (FE)
- Erregistro Osagarria (EO)
- Jaiotza Erregistroa (JE)
- Behin betiko Erregistroa (BBE)

Atal osagarria edo erantsia. Erregistro hauek osatzen dute:

- EOA Erregistroa
- EOB Erregistroa
- JEOb Jaiotza Erregistro Osagarria

#### 1.– Fundazio Erregistroa (FE).

1) Baldintza hauek bete beharko dituzte erregistratutako animaliek:

a) Gutxienez hamabi hilabete izatea, bai arrek eta bai emeek.

b) Arrazaren ereduaren arabera, gutxienez 60 puntu lortzea emeen kasuan, eta 65 puntu arren kasuan.

2) Animalia bat erregistro horretatik kanpo utzi ahal izango da, baldin eta haren ondorengoek ezaugarri baztertzailerik badituzte.

3) Kalifikatzaileak proposatuko du, eta Genealogia Liburuaren Batzordeak berretsiko, FEtik kanpo uztea.

4) Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzaileak fundazio-liburua berriz irekitzea eska dezake, bertan sartu ahal izateko genealogia ezezagunekoak izan arren ustez arraza mantentzen lagundu dezaketen animaliak.

#### 2.– Erregistro Osagarria (EO).

Fundazio Erregistroa ixten denerako dago Erregistro Osagarria (EO), baldintza hauek betetzen dituzten emeentzat:

a) 12 hilabete baino gehiago izatea.

b) Arautegiari jarraikiz, banaka identifikatuta egotea.

c) Arrazaren prototipoaren arabera, gutxienez 60 puntu lortzea.

d) Ezaugarri baztertzailerik ez edukitzea.



Erregistro Osagarriak (EO) kategoria hauek ditu:

2.1.– AEO kategoria.

- 1) Lehen aipatutako baldintza guztiak betetzen dituzten emeak (oinarrizko emeak).
- 2) AEO erregistro horrek jaiotzen atal bat ere izango du (JE-AEO), eta bertan inskribatuko dira, behin-behinean, baldintza hauek betetzen dituzten emeak:
  - a) 6 hilabetetik beherakoa izatea edo titia kendu gabe egotea.
  - b) AEOko amen eta BBEko edo FEko aiten ondorengoak izatea. Gurasoak identifikatzen dituen jaiotza-agiriaren bidez ziurtatuko da.
  - c) Lehen adierazitako moduan identifikatuta egotea.

2.2.– BEO kategoria.

Kategoria honetako animalia gisa inskribatu ahalko dira Erregistro Osagarrian inskribatuta egoteko baldintzak betetzen dituzten emeak, haien ama AEO kategoriakoa bada eta aita BBE edo FE kategoriakoa, eta aldez aurretik JE-AEO kategorian inskribatuta badaude.

3.– Jaiotza Erregistroa (JE).

Baldintza hauek betetzen dituzten bi sexuetako animaliak inskribatuko dira erregistro honetan:

- a) 6 hilabetetik behera izatea edo titia kendu gabe egotea.
- b) Ugalketarako gaitzat jotako animalien gurutzaketaren emaitza izatea. Horretarako, gurasoek Fundazio Erregistroan edo Behin Betiko Erregistroan inskribatutakoak edo EOB kategoriako amak izan behar dute, baldin eta arrazaren berezko ezaugarriak badituzte.
- c) Arautegiari jarraituz identifikatuta egotea.
- d) Seme-alabatasun genetikoaren kontrola exijituko da, Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzailearen irizpidearen arabera.

Ama EO eta aita FE edo BBE duten arrak ezin dira sartu Genealogia Liburuko ezein jaiotza-erregistrotan.

4.– Behin Betiko Erregistroa (BBE).

Erregistro honetan Jaiotze Erregistrotik (JE) datozen animaliak baino ezin izango dira inskribatu, eta honako baldintza hauek betez gero:

- a) Gutxienez hamabi hilabete izatea, bai arrek eta bai emeek.
- b) Jaiotza Erregistroan inskribatuta egotea.
- c) Arrazaren ereduaren arabera, gutxienez 60 puntu lortzea emeen kasuan, eta 65 puntu arren kasuan.
- d) Filiazio genetikoaren kontrol bat edukitzea, Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzaileak eskatzen duen bakoitzean.

- e) Ezaugarri baztertzailek ez edukitzea.
- f) Arautegiari jarraituz identifikatuta egotea.

Animalia bat erregistro horretatik atera daiteke, baldin eta haren ondorengoek ezaugarri baztertzaileak badituzte.

#### 4.– INSKRIPZIOA.

Genealogia Liburuko inskripzioak animalien jatorriagatik (Jaiotza Erregistroan edo EOB kategorian) edo Erregistro Osagarrian (EO) egin daitezke.

- a) Jatorriagatik inskribatzea:

Ama Enkarterriko billanoa arrazakoa duten animaliak automatikoki erregistratuko dira Jaiotza Erregistroan (JE), baldin eta eme horiek Fundazio Erregistroan (FE), Behin Betiko Erregistroan (BBE) edo EOB kategorian erregistratuta badaude eta Fundazio Erregistroan (FE) edo Behin Betiko Erregistroan (BBE) erregistratutako hazitarako eta ugalketarako gaitzat jotako arrek estali badituzte. Horretarako, betiere, estaltze- zein jaiotza-aitorpenak beharko dira. Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzaileak erabakiko du aitatasuna kontrolatzeko zer proba egin behar den.

EO Erregistro Osagarriaren jaiotza-sekzioan inskribatuko dira ama Enkarterriko billanoa arrazakoa duten emeak, baldin eta ama horiek Erregistro Osagarrian erregistratuta badaude eta Fundazio Erregistroan (FE) edo Behin Betiko Erregistroan (BBE) inskribatutako hazitarako eta ugalketarako gaitzat jotako arrek estali badituzte. Horretarako, betiere, estaltze- zein jaiotza-aitorpenak beharko dira. Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzaileak erabakiko du aitatasuna kontrolatzeko zer proba egin behar den.

- b) Erregistro Osagarrian (EO) inskribatzea: eranskin honetako 3.2. atalean zehazten diren betebeharrak betetzen dituzten emeak inskribatuko dira.

Animalien identifikazio ofiziala egiteko ezarritako sisteman oinarrituko da.

Ugalketarako ezgaitzat joko dira Jaiotza Liburuan inskribatu bai baina kalifikatzeke dauden edo kalifikazioa gainditzeke duten animaliak, eta, horrenbestez, haien ondorengoak ezin izango dira Jaiotza Erregistroan inskribatu. Salbuespenez, eta Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzailearen irizpidearen arabera, jaiotegunaren ondoren Behin Betiko Erregistroan inskribatutako animalien ondorengoak Jaiotza Erregistroan inskribatu ahalko dira.

#### 5.– HOBEKUNTZA PROGRAMAREN BATZORDE KUDEATZAILEA.

- 1.– Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzailea eratzea.

Enkarterriko billanoa arrazaren Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzailea eratzten da.

- 2.– Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzailearen eginkizunak.

Honako hauek dira batzordearen eginkizunak:

- a) Genealogia Liburuaren funtzionamendu- eta lan-prozedurak idaztea eta onartzea, eta eginkizunak zehaztea liburua eramateko aitortuta dagoen erakundeari eta erakunde horren barruan egon litezkeen elkarteei.
- b) Aitortutako erakundearen jardueren jarraipena egitea; batez ere, lege-betebeharrena.

- c) Genealogia Liburuaren funtzionamenduko gorabeherak aintzat hartzea eta konpontzea.
- d) Baimendutako kalifikatzaileak proposatzea.
- e) Arrazaren Kontserbazio Programa eta helburuak finkatzea, edo Hautapen Programa, lehen helburua betetakoan.
- f) Arrazaren Hedapen Programa eta helburuak finkatzea.
- g) Arrazaren mantentze-, sustatze- eta hobetze-programak garatzea, koordinatzea eta jarraipena egitea.
- h) Enkarterriko billanoa txakur-arrazaren arraza-prototipoaren aldaketak proposatzea.

### 3.– Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzailearen osaera.

#### 1) Honako kide hauek osatuko dute batzordea:

- a) Arrazaren Genealogia Liburua eramatea aitortu zaion erakundeko presidentea izango da batzordeko presidentea.
  - b) Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundeko 3 ordezkari. Batzordeko kide izan beharko dira, eta haren araubidearen arabera jardungo dute.
  - c) Genealogia Liburua eramatea aitortu zaion erakundeko edo hura osatzen duten elkarteetako lantalde teknikoko kide bat.
- #### 2) Kide horietako bat jardungo da batzordeko idazkari bezala.
- #### 3) Batzordeko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea eta gizonen eta emakumeen arteko oreka bilatuko da.

### 4.– Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzailearen funtzionamendua:

- 1) Hobekuntza Programaren Batzorde Kudeatzailea urtean behin bilduko da gutxienez.
- 2) Ezohiko bilkura egin ahalko da, batzordeburuak berak deituta edo gutxienez kideen % 66k eskatuta.
- 3) Ezohiko deialdi hori gutxienez 15 egun lehenago egingo da. Deialdian agertuko da gai-zerrenda, eta gai bakoitzean erabiliko den dokumentazioa banatuko da.